



HEZKUNTZA SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

EBAZPENA, 2021EKO APIRILAREN 6KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ EBAZTEN BAITA IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI-N LAN EGITEN DUTEN PERTSONA JAKIN BATZUEK 2021/2022 IKASTURTEAN ZERBITZU-EGINKIZUNAK LUZATZEKO DEIALDIA.

RESOLUCIÓN DE 6 DE ABRIL DE 2021, DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE RESUELVE LA CONVOCATORIA PARA LA PRÓRROGA DE COMISIONES DE SERVICIOS PARA EL CURSO ACADÉMICO 2021/2022 DE DETERMINADAS PERSONAS QUE PRESTAN SERVICIOS EN EL IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI.

Zerbitzu-eginkizuna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikuluan arautua, lanpostuak betetzeko ezohiko modu bat da.

La comisión de servicios, regulada en el artículo 54 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se encuentra configurada como una forma extraordinaria de desempeño de puestos de trabajo.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko martxoaren 15eko Ebazpenaren bidez, aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezarri zen.

Mediante Resolución de 15 de marzo de 2021, de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación, se estableció el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicio autorizadas para cursos escolares anteriores.

Aipatutako 2021eko martxoaren 15eko Ebazpenaren zortzigarren atalean ezarritako arabera, deialdi espezifiko bakoitzeko luzapenak emateko eta uko egiteak onartzeko ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpenetarako.

Conforme a lo establecido en el apartado octavo de la citada Resolución de 15 de marzo de 2021, la resolución de concesión de prórrogas y aceptación de renunciaciones por cada convocatoria específica se publicará, a efectos de notificación, en la página web del Departamento de Educación.

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

Así, en virtud de las facultades que tengo conferidas,

EBAZTEN DUT

RESUELVO:

Bakarra.- I. Eranskinean adierazten diren pertsonen, IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI-n zerbitzu-eginkizuna luzatzea, 2021-2022 ikasturterako.

Único.- Prorrogar la comisión de servicios en el IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI, durante el curso 2021-2022, a las personas que se relacionan en el Anexo I.

Luzapenak egiteko baldintza izango da IRALE programaren bidez 2021-2022 ikasturterako liberaziorik ez izatea, deialdi hau eragin zuten premiei eustea, eta bertan behera geratuko dira praktiketako funtzionario izendatzen badituzte eta esleitutako lanpostuan horiek garatu ezin badituzte.

Las prórrogas estarán condicionadas a que no tengan ninguna liberación por el programa IRALE para el curso 2021-2022, a que se mantengan las necesidades que dieron lugar a esta convocatoria, y decaerán en el caso en que sean nombrados funcionarios en prácticas y no puedan desarrollar las mismas en el puesto adjudicado.

Luzapenak ez du ondorioz izango, baldin eta lanpostu hutsik ez badago benetan gauzatzeko, lekualdaketa-lehiaketan erregelamenduz betetzen delako edo lanpostuari dagokion betetzeko modua dagoelako. Eraginik gabe geratuko da, halaber,

La prórroga quedará sin efecto en el caso de que no hubiese plaza vacante para su materialización efectiva, a consecuencia de su cobertura reglamentaria en concurso de traslados o la forma de provisión que corresponda al puesto. También



lanpostuaren titularra lanera itzultzen bada edo arauz betetzen bada.

quedará sin efecto en el supuesto de reingreso de la persona titular del puesto o cualquier cobertura reglamentaria.

Oro har, ezingo zaio uko egin ebazpen honen bidez emandako luzapenari.

Con carácter general, no se podrá renunciar a la prórroga concedida mediante esta resolución.

Zerbitzu-eginkizuna luzatu zaien karrerako funtzionarioei, luzapenei ekiteko deialdi berrien ondorioetarako, zerbitzu-eginkizunen egoera horretan daudenen antzeko lanpostuetan lekualdatze-lehiaketan parte hartu izana eskatuko zaie.

Al personal funcionario de carrera a quien se le haya prorrogado la comisión de servicios, a efectos de nuevas convocatorias para acceder a prórrogas, se le requerirá que haya participado en el concurso de traslados en puestos similares al ocupado en dicha situación de comisión de servicios.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan.

RECURSOS

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Departamento de Educación, con arreglo a lo dispuesto en los artículos artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 6an.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

UNITZA SAILA

GOBIERNO VASCO





I ERANSKINA/ ANEXO I

LUZAPENAK / PRÓRROGAS

IES USANDIZAGA-PEÑAFLOIDA-AMARA BHI

- ARANBURU GARCIA, ITZIAR
- GARCIA ALBERRO, JON ANDER

